

Mahai sektorialaren laburpena

1.- OSAKIDETZAK NEGOZIATZEKO DUEN IKUSPEGIA:

OSAKIDETZA:

- 2014 EPE: Enplegua finkatzeko ustezko prozesu baten barruan kokatzen du EPEa, eta bere asmoa hautaketa-prozesu bakar bat egitea da, deialdi bat baino gehiago egin arren. Areago, 2016ko deialdia ere metatu nahi dute, Madrildik ezarriko duten birjartze-tasa ezagutu bezain laster. Edonola ere, ezarritako birjartze-tasa onartu dute (%10 2014an, %50 2015ean, eta ezarriko dutena 2016an).
- Berrikuntza moduan, 2012ko kontratazio-mailara itzultzea proposatu dute, behin-behineko kontratazio bidez, irizpideak eta kontratazioaren kalitatea zehaztu barik, eta datuak egiazkoak diren edo ez kontrolatzeko tresna egokirik ezarri gabe.
- Lanbide-garapenari dagokionez, 2011ko deialdien ordainketa 2016an edo 2015eko azken hiruhilekoan hasi liteke.
- Gainerako puntuekiko, aurreko proposamenari eutsi diote.

ELA:

- Berriro diogu, ELAren akordio orokor bat egin ahal izateko, 2010eko egoerara itzuli behar dela; hau da, murrizketarik gabeko egoera batera. Nolanahi ere, Osakidetza ematen duen pauso bakoitza, onerako edo txarrerako, aztertuko dugu. Ezin da akordiorik egin ELAren, aurreko akordioak errespetatzen ez badira. Izan ere, aurretik hitzartu dena bete ezean, ez dago batere ziurtasunik akordio berriak beteko direnik.
- Kontratazioa ugaltzeko asmoa benetakoa bada, aldeko balioespena egingo genuela azaldu genuen. Hau da, baldin eta 2012ko kontratazio-mailara itzultzen bada (1481 lanpostu gehiago, 2013an baino), kontratu horiek hilabetekoak badira, noiz kontratatuko den eta noiz ez ezagutzeko irizpide zehatzik ezartzen badira, eta datuak egiazkoak diren kontrolatzeko baliabideak baditugu. Hilean 1500 kontratazio gehiago eginez 2010ean beste ordeztu litekeela adierazi dugu; hau da, kasu gehienetan eta arrazoi guztiengatik lehen egunetik ordeztu liteke. Hori da sindikatu guztiok eskatu duguna.

- Gainerako puntuekiko ez dago berrikuntzarik. Enplegua finkatzen duen EPE bat eskatzen jarraitu dugu; hau da, EPEaren ondotik behin-behineko langile gutxiago egon behar dira, EPEaren aurretik zeudenak baino (iragarritako EPEak prekarietate handiagoa ekarriko du). Ezin zaio jendeari eskatu lanbide-garapeneko 4 urte ahazteko. Eta aurreko bileran Zuzendaritzak esan zuen, mahai orokorraren ostean, sektore-mahaian lanaldiaz hitz egingo genuela; baina aurreko lanaldiaren luzapena ezartzen jarraitu dute.

2.- 2014 EPE:

OSAKIDETZA

- Osakidetzak 10 plazatan igo nahi du eskaintza, 474tik 484ra. Diotenez, orain plaza-kopuru baten deialdia egingo dute, eta gero gainerako gaiak "negoziatuko" dira (eskainitako kategoriak, azterketa-eredua...). Halaber, aurre-akordioa lortzen dutenekin gai horietan gehiago sakonduko dutela diote. Azkenik, barne-sustapeneko plaza-kopurua zenbatekoa den eta plaza horiek txanda irekian txertatuko diren negoziatzeko prest omen daude.

ELA:

- Guk azaldu diegu EPE barregarri hori ez dugula hitzartu behar, eta eskainitako plaza-kopuruarekin ados ez bagaude ere, prozesuari buruzko iritzia badugula; horregatik, gure iritzia adierazteko aukera eskatu diegu, baina akordio bat sinatu beharrik izan gabe. Halaber, barne-sustapeneko plaza-kopurua 6.000koa izatea eskatu dugu, eta txanda irekian txertatzea.

3.- ESI PROZESUAK:

OSAKIDETZA

- Lau ESI berri sortzea proposatu du 2015erako:
 - Gurutzeta-Ezkerraldeko ESI: Gurutzeta Ospitalea eta Ezkerralde eskualdea batera bildurik.
 - Donostialdeko ESI: Donostia Ospitalea eta Gipuzkoa eskualdeko zati bat batera bildurik.

- Uribeko ESI: oraingo Uribe eskualdea oinarri izanik, ireki behar den (2015eko amaieran edo 2016) Urduliz Ospitalea barne hartuz.
- Tolosaldeko ESI: Gipuzkoa Eskualdeko gainerakoa eta Asuncion Ospitale pribatua, itun bidez elkarlanean.

ELA:

- Gure iritziz ESlen prozesua osotasunean ebaluatu behar da, bai lan-harremanen aldetik (mugigarritasuna, kontratazioa...), bai zerbitzuaren aldetik. Hori dela-eta, ezin da ESI berririk sortu, ebaluazio hori aldeztu aurretik egin gabe. Areago, zenbait ESItan behintzat ez dago benetako batera biltze bat, Arreta Espezializatuaren menpean Lehen Arreta jarri da besterik gabe.
- Tolosaldeko egoera salatu dugu, jasanezina delakoan. Asuncion Ospitalea publiko bihurtzeko eskatu dugu, eskualde horrek, gainerakoek bezala, ospitale publiko bat izateko eskubidea baitu. Beldur gara ESI hori ez ote den saiakera bat lehen arreta publikoa ospitale pribatu baten zerbitzura jartzeko, eta galdetu dugu ea historia klinikoak partekatuko diren Asuncion-ekin, baina ez ziguten erantzun.

4.- GALDE-ESKEAK:

- Aurreko bileran ELAk eskatu zion Osakidetza lehen arretako fakultatiboak zaintzeko, Mutualitateen Lege berriaren inbasioaren aurrean. Lege horrek ezarritako burokrasia betetzeari uko egiten dieten medikuak zaintzeko eskatu genion. Osasun Sailera jotzera bidali gintuzten.
- Bizkaian garbitegi publiko bat irekitzea eskatu dugu, Osakidetza bete ez duen konpromiso bat. Diotenez pribatizaturik dagoenak horrela jarraituko du.
- Laugarren aldiz eskatu diegu Lekualdatze Lehiaketaren datuak aurkezteko, jakiteko ea zergatik azken EPEan plaza gutxiago esleitu ziren, deialdikoak baino. Ez dago daturik oraindik.
- Kontratazio-zerrendak irekitzea: abenduaren amaierara arte edo urtarrilera arte atzeratuko dela diote.
- Gerakinak (bigarren itzulua): abenduan deialdi txiki batzuk egingo dira (osasun mentaleko erizaintza, emaginak eta osasun-dokumentazio teknikiak), eta gainerakoak urtarilean. Datuak berehala emango dizkigutela hitzeman zuten.

- Zerrenda berriak ireki arteko bitarteko aldiak: aurreko bileran esan zuten ez zela bitarteko aldirik emango harik eta kontratazio-zerrenda berriak ireki arte. SATSEk kontrakoa proposatu du. Osakidetzak dio sindikatuen proposamenen zain dagoela. ELAtik esan diegu aurpegi gogorra dutela, itxaropenak sortu dituztela, eta orain sindikatuen esku utzi nahi dutela nork izango duen lana eta nork ez. Harturiko konpromisoak betetzeko esan diegu, berena dela ardura eta erantzukizuna, ez beste inorena.
- Gidarien plazak esleitzea: Antza denez denbora ematen saiatzen ari dira, jendeak titulazioak egokitu ahal izateko.